

## ***Lan-poltsa***

# ***Toki Administrazioiko Idazkaritza, Idazkaritza-Kontuhartzaitza eta Kontuhartzaitza-Diruzaintza***

**1. ariketa**

**A eredua**

**2016/07/09**

**1 ZEIN EPETAN EGIN BEHAR DA ADMINISTRAZIO-EGINTZA BATEN JAKINARAZPENA?**

- 1a) Egintza ematen denetik 10 eguneko epean egin behar da.
- 1b) Egintza ematen denetik 15 eguneko epean egin behar da.
- 1c) Egintza ematen denetik 30 eguneko epean egin behar da.
- 1d) Egintza ematen denetik 60 eguneko epean egin behar da.

**2 HAUETATIK, ZEINEK AMAITZEN DUTE ADMINISTRAZIO-BIDEA?**

- 2a) HAAJAPE 30/1992 Legearen 107.2 artikuluan egintzen aurka egiteko aipatzen diren prozeduretako ebazpenek.
- 2b) Edozein motatako akordio, itun, hitzarmen edo kontratuek.
- 2c) Mailaz goragokorik ez duten administrazio-organoen ebazpenek, araren batean aurkakoa ezartzen denean izan ezik.
- 2d) Lurzoru urbanizagarrietako obra txikietarako lizentziek.

**3 ONDAREZKO ERANTZUKIZUNEN PROZEDURAN, NAHITAEZKOA IZANGO DA ESTATU KONTSEILUAREN TXOSTENA EDO, HALA BADAGOKIO, AUTONOMIA-ERKIDEGOKO ORGANO AHOLKU-EMAILEARENA, BALDIN ETA ERREKLAMATUTAKO ORDAINEN KOPURUAK BADIRA...**

- 3a) 50.000 eurotik gorakoak edo dagokion administrazio autonomikoan ezartzen den kopurutik gorakoak.
- 3b) 50.000 eurokoak edo hortik gorakoak edo dagokion administrazio autonomikoan ezartzen den kopurutik gorakoak.
- 3c) 10.000 eurokoak edo hortik gorakoak edo dagokion administrazio autonomikoan ezartzen den kopurutik gorakoak.
- 3d) Edozein diru-kopuru, baina pertsonen osotasun fisikoari eragiten badiete.

**4 HAAJAPE 30/1992 LEGEAREN 57. ARTIKULUAREN ARABERA, HERRI-ADMINISTRAZIOEN ADMINISTRAZIO-ZUZENBIDEPEKO EGINTZAK BALIOZKOTZAT JOKO DIRA ETA ONDORIOAK IZANGO DITUZTE EMATEN DIREN EGUNETIK, EGINTZA HORIETAN BESTERIK ESATEN EZ BADA; BAINA, GUZTIAREKIN ERE...**

- 4a) Salbuespen gisa, atzeraeragina eman dakieke egintzei, deuseztatutako egintzen ordezkioak direnean eta interesdunari ondorio mesedegarriak dakarzkotenean, kontuan hartu gabe egintzak eraginkortasuna izateko jarri den data berrian egitatezko baldintzak existitzen ziren edo ez, eta eraginkortasunak kalterik ekartzen ez badie beste inoren eskubideei edo bidezko interesei.
- 4b) Salbuespen gisa, atzeraeragina eman dakieke egintzei, deuseztatutako egintzen ordezkioak direnean eta interesdunari ondorio mesedegarriak dakarzkotenean; betiere, batetik, egintzak eraginkortasuna izateko jarri den data berrian egitatezko baldintzak jadanik existitzen baziren, eta, bestetik, atzeraeraginak kalterik ekartzen ez badie beste inoren eskubideei edo bidezko interesei.
- 4c) Salbuespen gisa, atzeraeragina eman dakieke egintzei, deuseztatutako egintzen ordezkioak direnean soilik.
- 4d) Aurreko hiru erantzunak zuzenak dira.

**5 HAAJAPE 30/1992 LEGEAREN 59. ARTIKULUAREN ONDORIOZ, JAKINARAZPENAREN ORDEZ ARGITALPENERA JO DAITEKE, ETA ONDORIO BERAK IZANGO DITU, KASU HAUETAN:**

- 5a) Edozein motatako hautaketa-prozesu edo norgehiagoka prozeduretako egintzak direnean.
- 5b) Administrazioaren iritziz, interesdun bakar bati edo zenbaiti zuzendutako jakinarazpenak bermatzen ez duenean denei jakinarazi zaiela; azken kasu horretan, jakinarazpenaren osagarri izango da argitalpena.
- 5c) Aurreko bi kasuetan eta, gainera, zehaztu gabeko hartzaile-talde bati zuzendutako egintza denean.
- 5d) Ibilgailuen trafikoaren alorreko zehatzeko prozedurak direnean.

**6 HAAJAPE 30/1992 LEGEAREN 103. ARTIKULUAREN ARABERA, TOKIKO ERAKUNDE BATEN EGINTZA DEUSEZTAGARRIAK KALTEGARRITZAT JOTZEKO ERANTZUKIZUNA HONAKO HONENA DA:**

- 6a) Alkate-udalburuarena.
- 6b) Egintza nork eman duen, alkate-udalburuarena edo korporazioko batzarena, edo, horrelakorik ez badago, erakunde horretako kide anitzeko organo gorenarena.
- 6c) Korporazioko batzarena, edo, horrelakorik ez badago, erakunde horretako kide anitzeko organo gorenarena.
- 6d) Gobernuak probintzian edo lurralde historikoan duen ordezkariarena.

**7 HAAJAPE 30/1992 LEGEAREN 38. ARTIKULUAK DIOenez, HONAKO TOKI HAUETAN, BESTEAK BESTE, AURKEZTU AHALKO DIRA HERRITARREK HERRI-ADMINISTRAZIOETAKO ORGANOTARA ZUZENTZEN DITUZTEN ESKABIDEAK, IDAZKIAK ETA KOMUNIKAZIOAK:**

- 7a) Tokiko administrazioko edozein administrazio-organotako erregistroetan.
- 7b) Edozein administrazio-organotako erregistroetan: dela estatuko administrazio orokorrekoa, dela autonomia-erkidegoetako administraziokoa, dela probintzietako diputazioetako, kabildoetako eta irltako kontseilueta, dela Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 121. artikulua aipatzen dituen udalerrietako udaletakoa, dela, honi buruzko hitzarmena izenpetuz gero, tokiko administrazioko erakunderen batekoa.
- 7c) Edozein administrazio-organotako erregistroetan: dela estatuko administrazio orokorrekoa, dela autonomia-erkidegoetako administraziokoa, dela probintzietako diputazioetako, kabildoetako eta irltako kontseilueta, dela Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 121. artikulua aipatzen dituen udalerrietako udaletakoa, dela tokiko administrazioko erakunderen batekoa.
- 7d) Aurreko erantzuneko edozein administraziotan, salbu eta nazioarteko kontsuletxe eta administrazioetan.

**8 HAAJAPE 30/1992 LEGEAREN 115. ARTIKULUAREN ARABERA, GORAKO ERREKURTSOAREN EBAZPENAREN AURKA...**

- 8a) Aukerako berraztertze errekurtsoa jarri ahal izango da.
- 8b) Ezin izango da bestelako administrazio-errekurtsorik jarri berrikusteko errekurtsu berezia baino, eta hori legez ezarritako kasuetan bakarrik.
- 8c) Erantzun horietako bat ere ez da zuzena.
- 8d) Lehenengo bi erantzunak dira zuzenak.

**9 ESTATUAK ETA AUTONOMIA-ERKIDEGOEK UDALERRIEI ESKUMENAK ESKUORDETZAN EMATEKO, ...**

- 9a) Beharrezkoa da kasuan kasuko udalerrriak onarpena ematea.
- 9b) Ez da beharrezkoa kasuan kasuko udalerrriak onarpena ematea.
- 9c) Beharrezkoa da kasuan kasuko udalerrriak onarpena ematea, estatuak edo autonomia-erkidegoak hala erabakitzen badu.
- 9d) Berdin dio udalerrriak onarpena ematen duen ala ez, eskumenak beste administrazio batzuenak direlako.

**10 HERRI ADMINISTRAZIOEN ZIGORTZEKO AHALARI BURUZKO 2/1998 LEGEAK DIOENEZ, ZIGORTZEKO MODUKOAK HONAKO HAUEK DIRA:**

- 10a) Arauak hausteko konspirazioa, proposamena, probokazioa eta burutzea.
- 10b) Arauak hausteko apologia, konspirazioa, proposamena, probokazioa eta burutzea.
- 10c) Burututako arau-hausteak baino ez.
- 10d) Antzeko arau-haustea hiru aldiz baino gehiago egitea.

**11 TOKI-ERAKUNDEEN ONDASUNAK HONELA SAILKATZEN DIRA:**

- 11a) Jabari publikoko ondasunak eta ondare-ondasunak.
- 11b) Jabari publikoko ondasunak, ondare-ondasunak eta herri-ondasunak.
- 11c) Jabari publikoko ondasunak, ondare-ondasunak, soberako lurzatiak eta erabili ez daitezkeen efektuak.
- 11d) Herritarren erabilerarako ondasunak, zerbitzu publikoko ondasunak eta ondare-ondasunak.

**12 ZER ERABILERA-MOTA DA JABARI PUBLIKOKO ZATI BAT OKUPATZEAK ERATZEN DUENA ETA GAINONTZEKO INTERESDUNEN ERABILERA MUGATZEN EDO BAZTERTZEN DUENA?**

- 12a) Erabilera erkide orokorra.
- 12b) Erabilera erkide berezia.
- 12c) Erabilera pribatiboa.
- 12d) Ordenamendu juridikoak baimentzen ez duen erabilera.

**13 ZEREN BITARTEZ LOR DITZAKETE TOKIKO KORPORAZIOEK ONDASUNAK ETA ESKUBIDEAK?**

- 13a) Kostu bidez, jabetza kenduta edo kendu gabe.
- 13b) Jaraunspen, legatu edo dohaintza bidez.
- 13c) Preskripzio bidez, okupazio bidez eta Legeak esleitura.
- 13d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

**14 ONDASUN HAUETATIK, ZEIN DIRA BESTERENDUEZINAK, ENBARGAEZINAK ETA PRESKRIBAEZINAK ETA EZ DAUDE ZERGAPETUTA?**

- 14a) Ondare-ondasunak.
- 14b) Jabari publikoko ondasunak.
- 14c) Ondare-ondasunak eta jabari publikokoak.
- 14d) Herri-ondasunak eta ondare-ondasunak.

**15 TOKI-ERAKUNDE BATEK ZERBITZU BATEN KUDEAKETA GOMENDATZEN BADU, BAINA ZERBITZU HORI ESKAINTZEA BERE ESKUMENEKOTZAT HARTUA BADU, ZER NOLAKO KONTRATUA DA HORI?**

- 15a) Hornidura-kontratua.
- 15b) Zerbitzu publikoak kudeatzeko kontratua.
- 15c) Obra-kontratua.
- 15d) Sektore publikoaren eta sektore pribatuaren arteko lankidetzakontratua.

**16 ZER DIRA KONTRATU TXIKIAK?**

- 16a) 50.000 eurotik beherako zenbatekoa duten kontratuak, obra-kontratuak direnean.
- 16b) 100.000 eurotik beherako zenbatekoa duten kontratuak, obra-kontratuak direnean.
- 16c) 18.000 eurotik beherako zenbatekoa duten kontratuak, hornidura- edo zerbitzu-kontratuak direnean.
- 16d) Erantzun zuzenak a) eta c) dira.

**17 ZEIN DIRA KONTRATAZIO PUBLIKOKO OHIKO PROZEDURAK?**

- 17a) Prozedura irekia, prozedura murriztua eta prozedura negoziatua.
- 17b) Prozedura irekia eta prozedura murriztua.
- 17c) Prozedura irekia, prozedura murriztua, prozedura negoziatua eta lehia-elkarrizketa.
- 17d) Prozedura irekia eta publizitadedun prozedura negoziatua.

**18 KONTRATAZIO-ORGANOAK BERARIAZ HAUTATUTAKO ENPRESABURUEK BAINO EZIN BADUTE PROPOSAMENIK AURKEZTU, ENPRESABURUEK BEREK ESKABIDEA EGIN ETA GERO ETA HAIEN KAUDIMENAREN ARGITAN, NOLA DEITZEN ZAIO PROZEDURA HORRI?**

- 18a) Prozedura murriztua.
- 18b) Prozedura negoziatua.
- 18c) Prozedura irekia.
- 18d) Lehia-elkarrizketako prozedura.

**19 ZEIN DIRA ADMINISTRAZIO-KONTRATUA SUNTSIARAZTEKO KAUSAK?**

- 19a) Kontratista pertsona fisikoa bada, hura hiltzea edo ezgai bihurtzea; kontratista sozietatea bada, haren nortasun juridikoa azkentzea.
- 19b) Administrazioaren eta kontratistaren arteko adostasuna.
- 19c) Kontratuan berariaz ezarritako kausak bakarrik.
- 19d) a) eta b) erantzunak zuzenak dira.

**20 NOIZ ALDA DAITEZKE KONTRATUAK?**

- 20a) Hasieran kontratatu ez diren prestazio osagarriak gehitzeko.
- 20b) Kontratuaren xedea zabaltzeko, kontratua prestatzeko dokumentazioan jaso ez ziren helburu berriei begira.
- 20c) Bereiz erabili edo aprobetxatzeko moduko prestazio berri bat txertatzeko.
- 20d) Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.

**21 NORI ONARTZEN ZAIO TOKI-AUTONOMIA, TOKI-ARAUBIDEAREN OINARRIZKO LEGERIAREN ARABERA?**

- 21a) Toki-erakunde guztiei.
- 21b) Udalerriei, probintzietan, uharterei eta probintziaz bestelako edozein udal-elkartzeri.
- 21c) Udalerriei, probintzietan eta uharterei.
- 21d) Udalerriei bakarrik.

**22 DATU PERTSONALAK TRATATZEKO, ERAGINDAKO PERTSONAREN BAIMENA EMAN BEHARKO DA, SALBU ETA...**

- 22a) Xedapen orokor batek kontrakoa xedatzen badu.
- 22b) Datuak jendearen esku dauden iturrietan jasota badaude.
- 22c) Datuak lan-harreman baten kontratuaren edo aurrekontratuaren zatietan dagozkenean eta datuok beharrezkoak direnean harreman hori mantentzeko.
- 22d) Datuen tratamenduaren helburua interesdunaren interes legitimo bat babestea denean.

**23 ZER EZ DA DATU PERTSONALEN TRATAMENDUTZAT HARTUKO?**

- 23a) Datuen disoziazioa, halako moldez non lortutako informazioa ezin izango den uztartu identifikaturiko edo identifika daitekeen inongo pertsonarekin.
- 23b) Datu pertsonalak ezereztea, horretarako eskaera egin duena datuon titularra bada eta datu pertsonalak babesteko legediak baimentzen duen kasuetako bat bada.
- 23c) Prozedura ez-automatizatuen bidez datu pertsonalekin egiten diren eragiketak.
- 23d) Aurreko erantzun guztiak jo behar dira datu pertsonalen tratamendutzat.

**24 ZEIN KASUTAN EZINGO DITU TOKI-ERAKUNDE BATEK ZERBITZU PUBLIKOAK ZEHARKA KUDEATU?**

- 24a) Ahal publikoen egikaritzea dakarten funtzioak direnean.
- 24b) Erakunde horrek eman behar dituen gutxieneko zerbitzuei lotutako funtzioak direnean.
- 24c) Toki-erakundeentzat gordetako zerbitzuei lotutako funtzioak direnean.
- 24d) Konstituzioak babesten dituen oinarrizko eskubideen funtsezko edukiari eragiten dioten funtzioak direnean.

**25 NOLAKOA IZAN BEHAR DU TOKIKO ZERBITZU PUBLIKO BAT ZEHARKA KUDEATZEKO MODUAK?**

- 25a) Toki-araubidearen oinarrizko legedian jasotako moduetako bat.
- 25b) Toki-araubidearen legedian edo legedi hori garatzen duen autonomia-legedian jasotako moduetako bat.
- 25c) Zerbitzu publikoak kudeatzeko kontratuarako jasotako moduetako bat.
- 25d) Merkataritza-legedian jasotako moduetako bat.

**26 ZEREN BIDEZ ARAUTUKO DIRA ZERBITZU PUBLIKOAK EMATEKO ERATUTAKO MERKATARITZA-SOZIETATEAK?**

- 26a) Sozietate horiek atxikita dauden toki-erakundeei aplikagarria zaien ordenamendu juridikoaren bidez.
- 26b) Ordenamendu juridiko publikoaren bidez, aurrekontuei eta langileen kudeaketari dagokienez.
- 26c) Administrazio-kontratazioaren alorreko ordenamendu juridiko publikoaren bidez.
- 26d) Ordenamendu juridiko pribatuaren bidez, jarduera- eta kudeaketa-esparru osoan.

**27 ADIERAZI ERANTZUN ZUZENA, TOKIKO ZERBITZU PUBLIKOEN KUDEAKETARI DAGOKIONEZ**

- 27a) Hitzarmena egin behar da kasuan kasuko zerbitzu publikoaren antzeko jarduerak egiten dituen pertsona fisiko edo juridiko batekin.
- 27b) Kudeaketa interesdunak esan nahi du zerbitzuaren ustiapenean Administrazioak eta enpresaburuak esku hartzen dutela, hasieran zerbitzua emateko haietako bakoitzak egin duen inbertsio-zenbatekoaren proportzioan.
- 27c) Tokiko zerbitzu publikoa merkataritza-sozietate bidez emateak ez du esan nahi Administrazioak esku hartuko duenik, bere kabuz edo erakunde publiko baten bitartez, pertsona fisiko edo juridikoekin batera.
- 27d) Zerbitzu publikoak kudeatzeko kontratuak ezingo du iraun 50 urte baino gehiago.

**28 EGINKIZUN HAUETATIK, ZEIN BETE BEHAR DUTE UDAL GUZTIEK EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNAREN ARLOAN?**

- 28a) Harrera-pisuak izatea etxeko tratu txarren biktimek dituzten aldi baterako babes- eta bizileku-premia larriei erantzuteko.
- 28b) Emakumeen eta gizonen berdintasunaren printzipioari jarraituz onartutako arauen segimendua eta haien aplikazioarena egitea.
- 28c) Herritarrei informazioa eta orientazioa ematea emakumeen eta gizonen berdintasunaren alorreko baliabide eta programei buruz eta diskriminazio anizkoitza jasaten duten emakumeek oinarrizko eskubide sozialak baliatzeari buruz.
- 28d) Emakumeen eta gizonen berdintasunaren alorreko arau eta gidalerro orokorrak lantzea eta haien plangintza orokorra egitea.

**29 ORGANO HAUETATIK, ZEINEK EGON BEHAR DU EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO UDAL GUZTIETAN?**

- 29a) Iradokizunen eta Erreklamazioen Batzorde Berezia.
- 29b) Kontuen Batzorde Berezia.
- 29c) Hirigintza-batzordea.
- 29d) Tokiko Gobernu Batzarra.

**30 NOREN ARDURAPEAN EGON DAITEKE ANTOLAKETARI BURUZKO ARAU MAILAKO XEDAPEN OROKORRAK ONARTZEKO ESKUMENA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO UDALETAN?**

- 30a) Udal batzaren ardurapean, eta izango dio beste bati eskuordetu.
- 30b) Udal batzaren ardurapean, baina alkateari eta tokiko gobernu-batzarrari eskuordetu diezaike.
- 30c) Udal batzaren ardurapean eta tokiko gobernu-batzarrarenean.
- 30d) Udal batzaren ardurapean eta alkatearenean.

**31 EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO UDALERRI BATEKO KIDEEK DIRUA JASO AHAL IZANGO DUTE TOKI-ERAKUNDE HORRETAKO KIDE ANITZEKO ORGANOETAKO BILKURETARA JOATEAGATIK...**

- 31a) Beren karguak dedikazio partzalean betetzen dituztenean.
- 31b) Osoko kide diren kide anitzeko organo bakoitzak egiten duen bilkura bakoitzeko.
- 31c) Beren karguak ez dituztenean betetzen ez dedikazio eskusiboan ezta dedikazio partzalean ere.
- 31d) Bateragarritasuna baimenduta daukatenean.

**32 ZER BEHAR DU EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO UDALERRI BATEK MANKOMUNITATE BATEAN SARTZEKO?**

- 32a) Aldeko botoen bi heren baino gehiago dituen osoko bilkurako erabakia.
- 32b) Aldeko botoen gehiengo osoa duen osoko bilkurako erabakia.
- 32c) Ezezko botoak baino aldeko boto gehiago dituen osoko bilkurako erabakia, abstentzioak kontuan hartu gabe.
- 32d) Ezezko botoak eta abstentzioak batuta baino aldeko boto gehiago dituen osoko bilkurako erabakia.

**33 3.000 BIZTANLE DITUEN EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO UDALERRI BATEK HONAKO ZERBITZU HAUEK EMAN BEHAR DITU, GUTXIENEZ:**

- 33a) Argiteria publikoa eta hondakin-bilketa.
- 33b) Estolderia eta liburutegi publikoa.
- 33c) Bide-garbiketa eta liburutegi publikoa.
- 33d) Parke publikoa eta argiteria publikoa.

**34 ESKUMENIK BA AL DU EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO UDALERRI BATEK, TOKIKO KOMUNITATEAREN INTERESAREN IZENEAN, BERE ESKUMEN PROPIOETAN SARTZEN EZ DEN BESTE JARDUERA BAT EGITEKO?**

- 34a) Bai, interes publikoaren xedearekin diharduelako.
- 34b) Bakarrik jarduera hori transferitua edo eskuordetua badago.
- 34c) Bai, nahiz eta transferitua edo eskuordetua ez egon, baldin eta bikoiztasunik ez badago eta bere finantza-egonkortasuna arriskuan jartzen ez badu.
- 34d) Bai, nahiz eta transferitua edo eskuordetua ez egon, baldin eta bikoiztasunik ez badago eta subsidiarotasun-printzipioa hausten ez badu.

**35 ZER EZIN DA BAIMENDU EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO UDALERRI BATEKO LURZORU URBANIZAEZINEAN?**

- 35a) Azpiegiturak jartzea.
- 35b) Oin berriko eraikinak altxatzea.
- 35c) Partzelazio urbanistikoa.
- 35d) Eraikinak birgaitzea.

**36 ZEIN KASUTAN EZINGO DU EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO UDALERRI BATEK ERABAKI EREMU EDO ERABILERA JAKIN BATZUETARAKO ONESPENAK, BAIMENAK ETA HIRIGINTZA-LIZENTZIAK ETETEA?**

- 36a) Plan bereziak lantzearen ondorioetarako.
- 36b) Urte batez baino gehiago, plan berezien hasierako onarpena ematen denetik.
- 36c) Eragindako eremuan lizentzia-eskaerak oraindik ebazpenik gabe daudenean.
- 36d) Plan bereziak hasieran onartzen direnetik aurrera, plan bereziak lantzearen ondorioetarako aldeztatik etetea erabakitzen denean.

**37 EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO UDALERRIETAN, LAN HAUETATIK ZEINEK EZ DU HIRIGINTZA-LIZENTZIARIK BEHAR?**

- 37a) Hirigintza-proiektu batean jasota dauden urbanizazio-obrek.
- 37b) Lursailak ixteak.
- 37c) Negutegiak jartzeak.
- 37d) Etxe aurrefabrikatuak aldi baterako jartzeak.



**38 EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO UDALERRI BATEAN JARDUERA SAILKATU BAT EZARTZEKO BAIMENA DELA ETA, ...**

- 38a) Aldez aurreko jakinarazpen araubideari atxikia egon ahalko da.
- 38b) Ezingo da eman administrazio-isiltasun bidez.
- 38c) Autonomia Erkidegoko ingurumenaren arloko organoak emango du.
- 38d) Administrazio-lizentziaren bidez baimendu ahalko da bakarrik.

**39 EUSKADIKO TOKI ERAKUNDEEI BURUZKO APIRILAREN 7KO 2/2016 LEGEAREN ARABERA, ZER EGIN BEHAR DA LURRALDE HISTORIKO BATEKOAK BAINO GEHIAGOTAKOAK DIREN UDALEN MANKOMUNITATEAK ERATZEKO PROZEDURAN?**

- 39a) Kasuan kasuko foru-aldundien txostena behar da.
- 39b) Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta kasuan kasuko lurralde historikoetako aldizkarietan argitaratu behar dira estatutuak.
- 39c) 2/2016 Legeak ez du arautzen lurralde historiko batekoak baino gehiagotakoak diren udalen mankomunitateak eratzeko prozedura.
- 39d) Beharrezkoa da interesdun diren udal guztietako osoko bilkuretan onartzea mankomunitatearen eratzea eta haren estatutuak, bertaratutako kideen gehiengo soilaren aldeko botoarekin.

**40 EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN, UDALERRIARENA BAINO EREMU TXIKIAGOKO BESTE LURRALDE-ERAKUNDEAK DIRELA ETA, ...**

- 40a) Erakunde horiek nortasun juridikoa dute, eta beren helburuak betetzeko gaitasun osoa.
- 40b) Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legean arautzen dira lehenengo aldiz.
- 40c) Haien aldean, lurralde historikoek ekonomia eta finantza alorreko eskumenak dituzte bakarrik.
- 40d) Udalerritik modu deskontzentratuan antolatzen diren erakundeak dira, sakabanatutako biztanle-guneen administrazio-lanak egiteko, baina ez dute nortasun juridikorik.

**41 UDAL-ERROLDAKO DATUAK DIRELA ETA, ...**

- 41a) Ezin zaizkie inola ere laga beste administrazio publiko batzuei datuon titularrak baimena ematen ez badu, datu konfidentzialak baitira.
- 41b) Ez dute zertan bete datu pertsonalak babesteko legedia.
- 41c) Telefono-zenbakia nahitaezko datua da.
- 41d) Udalerrian bizilekua izatearen froga eta bertan ohiko egoitza izatearen froga dira.

**42 EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO UDALERRI BATEKO AUZOTARTASUNA DELA ETA, ...**

- 42a) Erroldan inskribatzeko unean bertan bihurtzen da pertsona bat auzotar.
- 42b) Eskubidea ematen du zerbitzu publiko zehatzen bat eman dadin eskatzeko eta, hala badagokio, zerbitzua ezartzeko, udalaren nahitaezko eskumenekoa denean.
- 42c) Eskubidea ematen du toki-administrazioarekiko harremanetan, hizkuntza ofizial bietatik edozein erabiltzeko eta aukeratutakoan artatua izateko, herritarren hizkuntza-eskubideak arautzen dituen autonomia-erkidegoko legediaren arabera.
- 42d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

#### 43 ATZERRITARRAK UDAL-ERROLDAN INSKRIBATUTA EGOTEA DELA ETA, ...

- 43a) Espainiako Estatuan legezko bizilekua dutelako froga da, eta espainiar nazionalitatea duten auzotar guztiei indarrean dagoen legediak aitortzen dizkien eskubide guztiak ematen dizkie.
- 43b) Eskubidea ematen die Gorte Nagusietarako hauteskundeetan eta autonomikoetan eta udal hauteskundeetan hautesle eta hautagai izateko.
- 43c) Ez dute horregatik indarrean den legediak ematen dizkienez besteko eskubiderik izango, bereziki atzerritarrek Espainian dituzten eskubideen eta askatasunen alorrean.
- 43d) Espainiako Estatuan legezko bizilekua dutelako froga da, baina horrek ez dizkie ematen espainiar nazionalitatea duten auzotar guztiei indarrean dagoen legediak aitortzen dizkien eskubide guztiak.

#### 44 HIZKUNTZA-ESKAKIZUNAK ETA DERRIGORTASUN-DATA DIRELA ETA, ZEIN DA BAIEZTAPEN ZUZENA?

- 44a) Lanpostu-zerrendetan egon behar diren zehaztapenen artean hizkuntza-eskakizuna sartu behar da, nahitaezkoa denean; nahitaezkoa ez bada, ez da beharrezkoa sartzea.
- 44b) Hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko bide bakarra IVAPek aldiari-aldiari egiten dituen ohiko deialdiak dira.
- 44c) Derrigortasun-datatik aurrera, hizkuntza-eskakizuna bete egin beharko da dagokion lanpostura iristeko eta bertan jarduteko; baina dena delako lanpostuaren titularrak 45 urte baino gehiago baditu plangintzaldia hasten den unean, dagokion hizkuntza-eskakizuna betetzetik salbuetsi ahal izango da, aldezturik bere adostasuna adierazita.
- 44d) Hizkuntza-eskakizuna ezin da inola ere merezimendu gisa balioetsi.

#### 45 OPOSIZIO-LEHIAKETA ENPLEGU PUBLIKORA IRISTEKO SISTEMA BAT DA, ...

- 45a) Lan-kontratuko langile gisa eta behin-behineko langile gisa sartzeko.
- 45b) Karrerako funtzionario gisa eta langile lan-kontratudun finko gisa sartzeko.
- 45c) Behin-behineko langile gisa, funtzionario gisa eta lan-kontratudun gisa sartzeko.
- 45d) Karrerako funtzionario gisa eta bitarteko langile gisa sartzeko soilik.

#### 46 EUSKADIKO TOKI-ERAKUNDEETAKO ZUZENDARITZAKO LANGILE PUBLIKO PROFESIONALAK DIRELA-ETA, ADIERAZI BAIEZTAPEN OKERRA:

- 46a) Oro har, karrerako funtzionarioek edo lan-kontratudun finkoek beteko dituzte toki-erakundeetako zuzendaritza-postuak.
- 46b) Kargudun publikoei aplikagarria zaien bateraezintasunei eta interes-gatazkei buruzko araubidea bete beharko dute zuzendaritzako langile publiko profesionalak.
- 46c) Zuzendaritzako langile publiko profesionala izatea balioesteko moduko ezaugarria izango da lanpostuen barne-sustapenean eta barne-hornikuntzan.
- 46d) Zuzendaritza-postuak zehazteko, kasuan kasuko toki-erakundeko lanpostu-zerrenda erabiliko da.

**47 EUSKAL FUNTZIO PUBLIKOARI BURUZKO UZTAILAREN 6KO 6/1989 LEGEAREN ARABERA, OPOSIZIO-LEHIAKETAN ZEIN DA LEHIAKETA-FASEAREN GEHIENEZKO PUNTUAZIOA?**

- 47a) Lehiaketa-fasearen balorazioa inoiz ez da gehiago izango oposizio-fasean gehienez atera daitekeen puntuazioaren % 45 baino.
- 47b) Lehiaketa-fasearen balorazioa inoiz ez da gehiago izango oposizio-fasean gehienez atera daitekeen puntuazioaren % 40 baino.
- 47c) Lehiaketa-fasearen balorazioa inoiz ez da gehiago izango oposizio-fasean gehienez atera daitekeen puntuazioaren % 50 baino.
- 47d) Lehiaketa-fasearen balorazioa inoiz ez da gehiago izango oposizio-fasean gehienez atera daitekeen puntuazioaren % 35 baino.

**48 NORK HARTU BEHAR DU PARTE EUSKADIKO UDALERRIETAKO ENPLEGU PUBLIKORA IRISTEKO HAUTAKETA-ORGANOETAN?**

- 48a) Alkatea partaide edo organo horren burua izango da, zeren legez langile guztien buru gorena baita.
- 48b) Oro har, trebakuntza, gaitasun eta prestakuntza egokia duten emakumeen eta gizonen kopuru orekatua izan behar da. Alegia, hautaketa-organoei lau kide baino gehiago baldin badituzte, ordezkari orekatua izango da sexuatariko bakoitzak gutxienez % 40ko presentzia duenean.
- 48c) Inoiz ere ez da kanpo-aholkularirik onartuko, hautaketa-organoei jarduteko beharrezkoa duten konfidentzialtasuna ez urratzeko.
- 48d) Bitarteko funtzionarioek parte har dezakete.

**49 EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAREN EREMUAN, ZEIN DA ESTATUKO GAIKUNTZA DUTEN TOKI-ADMINISTRAZIOKO FUNTZIONARIOEI DIZIPLINA-ZEHAPENAK JARTZEKO ORGANO ESKUDUNA?**

- 49a) Beti Ogasun eta Administrazio Publikoetako ministroa, zeren toki-erakundeetako gainerako langileen aldean araubide berezia duten langileak baitira.
- 49b) Beti Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko organo eskuduna.
- 49c) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko organo eskuduna, falta oso astunak badira; kasuan kasuko foru-aldundiko organo eskuduna, falta astunak badira, eta tokiko organo eskuduna, falta arinak badira.
- 49d) Tokiko organo eskuduna, falta arinak badira.

**50 DIZIPLINA-PROZEDURAN...**

- 50a) Behar bezala bereiziko dira instrukzio-fasea eta zehapen-fasea, eta organo banari aginduko zaizkio.
- 50b) Kautela-neurri moduan arautzen den behin-behineko etendura ezin da hiru hilabetetik gorakoa izan.
- 50c) Ez da beharrezkoa interesdunari entzutea baldin eta leporatzen zaiona falta arin bat besterik ez bada.
- 50d) Ebazpena eman daiteke kontuan hartu gabe funtzionario beraren aurka egitate berak direla eta prozedura penal bate epai irmo baten barruan emandako egintza frogatuen adierazpena, zeren diziplinazko erantzukizuna ulertzen baita hargatik eragotzi gabe funtzionarioak izan dezakeen erantzukizun penala.

**51 AURREKONTUARI BURUZKO FORU-ARAU APLIKAGARRIAREN ARABERA, HONAKO ERAGIKETA HAUEN ONDORIOZ ERATORRITAKO DIRU-SARRERAK HARTUKO DIRA KREDITU BERRIAK GAITU EDO DAUDENAK ZABALDU AHAL DITUZTEN SARRERATZAT:**

- 51a) Ondare-ondasunen besterentzeak eta diruzaintzako gerakina gastu orokorretarako.
- 51b) Zerbitzu-emateak eta ezeztatzeagatiko bajak.
- 51c) Zerbitzu-emateak eta itxitako aurrekontuetan oker egindako ordainketen itzulketak.
- 51d) a) eta b) erantzunak zuzenak dira.

**52 AURREKONTUARI BURUZKO FORU-ARAU APLIKAGARRIAREN ARABERA, JARRAIAN ADIERAZITAKO BAIEZTAPENETATIK, ZEIN DA EGIA?**

- 52a) Kredituen transferentziek ez dituzte gutxituko kredituak transferitzeko araubideen arabera edo kreditu gehigarrien bidez gehitutako ordainketa-kredituak.
- 52b) Kredituen transferentziek ez dute beste transferentzia batzuen bidez lehen gutxitutako krediturik gehituko.
- 52c) Kredituen transferentziek ezingo dituzte handigarriztat jotzen diren kredituak gutxitu.
- 52d) a) eta b) erantzunak zuzenak dira.

**53 AURREKONTUARI BURUZKO FORU-ARAU APLIKAGARRIAREN ARABERA, DIRU-SARREREN AURREKONTUAREN KUDEAKETA HONAKO FASE HAUETAN EGINGO DA:**

- 53a) Eskubidea aitortzea eta eskubidea kobratzea.
- 53b) Eskubidea aitortzea, eskubidea kobratzea eta justifikatu beharreko ordainketak.
- 53c) Eskubidea aitortzea, eskubidea kobratzea eta kutxa finkoko aurrerakinak.
- 53d) Eskubidea aitortzea, eskubidea kobratzea, justifikatu beharreko ordainketak eta kreditu ez-erabilgarriak.

**54 AURREKONTUARI BURUZKO FORU-ARAU APLIKAGARRIAREN ARABERA, ZER EGITEN DA GASTUA ERABILTZEKO EDO KONPROMETITZEKO EGINTZAREN BITARTEZ?**

- 54a) Egintza honen bitartez, diru-zenbateko jakin edo gutxi gorabeherako bat kreditu zehatz batean zordunduz gastua egitea adosten da, kreditu osoa edo erabilgarri dagoen zatia horretarako gordez.
- 54b) Egintza honen bitartez, legez ezarritako tramiteak bete ondoren diru-zenbateko jakin batean aldeztu aurretik baimendutako gastuak egitea adosten da.
- 54c) Egintza honen bitartez, legez ezarritako tramiteak bete ondoren diru-zenbateko gutxi gorabeherako batean aldeztu aurretik baimendutako gastuak egitea adosten da.
- 54d) Egintza honen bitartez, erakundeari eska dakiokkeen kreditu bat dagoela aitortzen da, gastu baimendu eta konprometitu batetik etorritakoa.

**55 AURREKONTUARI BURUZKO FORU-ARAU APLIKAGARRIAREN ARABERA, NOLA EGIN BEHAR DA DIRU-SARREREN KONTABILIZAZIOA ETA KONTROLA, GUTXIENEZ?**

- 55a) Egitura organikoaren eta artikuluen arabera.
- 55b) Programaren eta kontzeptuaren arabera.
- 55c) Artikulu mailan.
- 55d) Kontzeptu mailan.

- 56 AURREKONTUARI BURUZKO FORU-ARAU APLIKAGARRIAREN ARABERA, AURREKONTU OROKORRA ERATU ONDOREN, NOIZ BIDALIKO DIO TOKI-ERAKUNDEKO PRESIDENTEAK KORPORAZIOKO BATZARI?**
- 56a) Urriaren 15 baino lehen.  
56b) Urriaren 31 baino lehen.  
56c) Irailaren 30a baino lehen.  
56d) Urriaren 25 baino lehen.
- 57 AURREKONTUARI BURUZKO FORU-ARAU APLIKAGARRIAREN ARABERA, BEHIN AURREKONTU OROKORRARI HASIERAKO ONARPENA EMAN ONDOREN, ZENBAT DENBORA JARRIKO DA JENDAURREAN, LURRALDEKO ALDIZKARI OFIZIALEAN IRAGARKIA ATERA ETA GERO?**
- 57a) Hilabete batez.  
57b) 20 egun.  
57c) 15 egun.  
57d) 10 egun.
- 58 AURREKONTUARI BURUZKO FORU-ARAU APLIKAGARRIAREN ARABERA, ZER EGIN BEHAR DU KORPORAZIOKO BATZAK BALDIN AURREKONTUA LIKIDATZEN DENEAN DIRUZAINTZAKO GERAKIN NEGATIBORIK BADAGO?**
- 58a) Egiten den lehenengo bilkuran, aurrekontu berriko gastuak gutxitu beharko ditu, izandako defizitaren neurri berean.  
58b) Gastuak gutxitzea ezinezkoa bada, diru-kopuru horren neurriko kreditu-operazio bat hitzartu daiteke.  
58c) a) eta b) ataletan azaldutako neurrietako bat ere hartzen ez bada, hurrengo ekitaldirako aurrekontua onartzerakoan defizit hori baino txikiagoa izango ez den hasierako superabita duela onartu beharko da.  
58d) Guztiak dira zuzenak.
- 59 AURREKONTUARI BURUZKO FORU-ARAU APLIKAGARRIAREN ARABERA, ZEIN EGINKIZUN DU TOKI-ERAKUNDEEN DIRUZAINTZAK?**
- 59a) Emaizak zehaztea, ekonomiaren eta ondarearen ikuspuntutik.  
59b) Toki-erakundeak hartutako abalen erantzulea izan.  
59c) Legezketasun, eraginkortasun, efizientzia, finantza eta antolaketaren kontrolak egitea ahalbidetzea.  
59d) Toki-erakundearen balantzea egitea.
- 60 AURREKONTUARI BURUZKO FORU-ARAU APLIKAGARRIAREN ARABERA, ZER EGIN BEHAR DU ORGANO KONTU-HARTZAILEAK, BERE EGINKIZUNAK BETETZEN ARI DELA, EZ BADAGO ADOS AZTERTUTAKO EGINTZA, AGIRI EDO ESPEDIENTEEN MAMIAREKIN EDO FORMAREKIN?**
- 60a) Osoko Bilkurari jakinarazi behar dizkio bere eragozpenak, egiten den lehenengo bilkuran.  
60b) Herri Kontuen Euskal Epaitegiari jakinarazi behar dizkio bere eragozpenak.  
60c) Toki-erakundearen finantza-tutoretza duen lurralde-organoari jakinarazi behar dizkio bere eragozpenak.  
60d) Eragozpenak idatziz adieraziko ditu, erabakia edo ebazpena hartu aurretik.

## ORDEZKO GALDERAK

- 61 EUSKADIKO TOKI-ERAKUNDEETAKO EUSKARAREN ERABILERA DELA-ETA, MARKATU BAIEZTAPEN OKERRA:**
- 61a) Udalen eskumen-eremuko zerbitzuetan eta jardueretan euskararen erabileraren normalizazioa planifikatzea udalen beren eskumen propioa da, horrela araututa baitago Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legean.
- 61b) Ebazpenak, aktak eta hitzarmenak euskaraz idazten direnean, euskaraz bidaliko zaizkie kopiak eta laburpenak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrari eta Euskal Autonomia Erkidegoan egoitza duten Estatuko organoei, salbu eta berariaz eskatzen badute Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntzetan bidaltzeko, toki-erakundeak orduan gaztelaniaz ere bidali beharko baitu dokumentua.
- 61c) Euskara Euskal Autonomia Erkidegoko toki-erakundeetako jardueretan erabilera normal eta orokorreko zerbitzu-hizkuntza eta lan-hizkuntza izango da, eta erakunde horiek bermatu beharko dute herritarrek benetan egikaritu ahal izatea haiekin harremanak izateko orduan hizkuntza ofiziala hautatzeko duten eskubidea.
- 61d) Udalaren jarduna euskaraz egin ahal izatea bermatzeko, hautetsiek hizkuntza ofizialean behar besteko gaitasuna (mintzatuaren eta idatziaren ulermena) izatea sustatuko da. Horretarako, beharrezko iruditzen zaizkien neurriak sartu ahalko dituzte euskararen erabilera normalizatzeko beren planetan.
- 62 12.000 BIZTANLE DITUEN UDALERRI BATEAN, NORK DU BALIO HISTORIKO EDO ARTISTIKODUN ONDARETZAT JOTAKO ONDASUNAK BESTERENTZEKO ESKUMENA?**
- 62a) Osoko bilkurak, ondasunen balioa edozein dela ere.
- 62b) Alkateak, ondasunen balioa edozein dela ere.
- 62c) Alkateak, balioa 6 milioi eurotik beherakoa bada.
- 62d) Balio historiko edo artistikoa duten ondasunak ezin dira inola ere besterendu.
- 63 ADIERAZI ZEIN DEN ERANTZUN ZUZENA.**
- 63a) Toki-erakundeek Toki-Administrazioko Batzorde Nazionalean duten ordezkariak Konstituzio Auzitegian zuzenean aurkaratu ahal izango ditu autonomia erkidegoetako legeak, Konstituzioak bermatzen duen toki-autonomia urratzen dutela pentsatzen badu.
- 63b) Udalerriek, Estatuan ordezkariak handiena duen udal-elkartearen bitartez, Konstituzio Auzitegian aurkaratu ahal izango dituzte Estatuko legeak edo autonomia erkidegoetako legeak, Konstituzioak bermatzen duen toki-autonomia urratzen dutela pentsatzen badute.
- 63c) Toki-erakundeek, kasuan kasuko autonomia-erkidegoko gobernuko presidentziaren bitartez, Konstituzio Auzitegian aurkaratu ahal izango dituzte Estatuko legeak edo autonomia erkidegoetako legeak, Konstituzioak bermatzen duen toki-autonomia urratzen dutela pentsatzen badute.
- 63d) Erantzun horietako bat ere ez da zuzena.
- 64 NOLA AUKERATU BEHAR DUTE TOKI-ERAKUNDEEK BEREN ZERBITZU PUBLIKOAK KUDEATZEKO MODUA?**
- 64a) Askatasunez.
- 64b) Ahalik eta modu jasangarri eta efizienteenean.
- 64c) Lehentasuna emanez kudeaketa zuzenari zeharkakoaren aurretik.
- 64d) Oroz gainetik, kalitatezko zerbitzu publikoa lehenetsiz, legedia sektorialak ezartzen dituen estandarren arabera.

**65 NOLAKOAK IZAN BEHAR DUTE EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO UDALERRIETAKO TOKIKO GOBERNU BATZARRAREN BILKUREK, BETIERE HERRITARREN FUNTSEZKO ESKUBIDEAK ERRESPECTATUTA?**

- 65a) Publikoak, osoko bilkurak hala erabaki badu.
- 65b) Publikoak, udal-erregelamendu organikoan hala jasota badago.
- 65c) Publikoak, bilkurak eskuordetutako eskumenak egikaritu behar dituenean.
- 65d) Publikoak beti.

**66 AURREKONTUARI BURUZKO FORU-ARAU APLIKAGARRIAREN ARABERA, JARRAIAN ADIERAZITAKO BAIEZTAPENETATIK, ZEIN DA EGIA?**

- 66a) Toki-erakundearen administrazioaren aurrekontuaren gastuen egoera-orrian, ordainketa-kreditu global bat sartu beharko da, beste ordainketa kreditu batzuen zenbatekoen urritasunak konpontzeko.
- 66b) Horrela eratutako kreditu globaleko diru-kopuruak ez du toki-erakundearen administrazioaren aurrekontuko ordainketa-kredituen % 10 gaitutako, zenbateko horren barruan kreditu globalaren beraren zuzkidura dagoela.
- 66c) Ezingo da zuzenean kreditu globalaren kontura gasturik baimendu.
- 66d) Kreditu globala erabili ahal izateko onarpena korporazioko batzak eman beharko du, salbu eta Aurrekontuak Gauzatzeko Arauak berariaz presidenteari eskuordetzen badio.